



HEMEN ZURE BONUA  
ERABIL DEZAKEZU

**nik**  **LEZON**

AQUÍ PUEDES UTILIZAR  
TU BONO



# LEZO BONUA

UDALERRIKO  
MERKATARITZA,  
OSTALARITZA ETA  
ZERBITZU-SEKTOREAN  
EROSKETA SUSTATZEKO

**Aurrekontua: 20.000 €**

# Atxikitzekeo baldintzak



**Lezoko udalerrian dauden establezimenduak**, pertsona fisikoak edo juridikoak izan, honako baldintza hauek betetzen dituztenak:

- Bere jardueraren helburu nagusia kontsumoko produktuak eta zerbitzuak kontsumitzaileari zuzenean saltzea izatea, **txikizkako merkataritzari, ostalaritzari eta pertsonentzako zerbitzuei** dagozkien jarduera ekonomikoen epigrafeei dagokienez.
- Merkatarari autonomoak edo mikroenpresak izatea. Mikroenpresatzat hartzen dira **10 pertsona baino gutxiago** dituztenak eta fakturazio-bolumena **milioi bat eurotik gorakoa ez dutenak**.
- **Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak** egunean izatea, bai eta, hala badagokio, diru-laguntzak itzultzeko betebeharrak ere.



## Bonuen zenbatekoa

Bonua 5 eurokoa izango da, 3,5 euroko salmenta-prezioa izango du, eta eramaileari 5 euroko balioa emango zaio kanpaina honi atxikitako establezimenduen sarean ondasunak eta zerbitzuak erosteko. Bonu bakoitzean 1,5 euroko aldea Lezoko Udalak jarriko du.

## Kontuan hartu beharrekoak

Aurrekontua agortu arte emango dira.

Aurkeztutako eskabide kopuruaren arabera banatuko dira.

Establezimenduak kanpainaren parte dela identifikatzen duen kartel bat izango du ikusgai



## Onuradunak

18 urtetik gorako pertsona fisikoak baliatu daitezke bonu hauetaz

## Bonuen banaketa eta salmenta:



- Bonuak eta kanpainaren parte dela identifikatzen duen kartela atxikitako establezimenduko dendariei banatuko zaizkie.
- Bonuak publikoari salduko zaizkio **atxikitako establezimenduetan**, eta erosi diren establezimendu berean erabiliko dira.
- Bonua erosiz gero, **gutxienez 5 euroko erosketa** egin beharko da.
- Erosketaren zenbatekoa bonuaren zenbatekoa baino txikiagoa bada, aldea **ez da eskudirutan itzuliko**.
- Bonuak **ezin dira eskudirutan trukatu**, eta horien zenbatekoa ez da inola ere itzuliko.
- "**Lezo Bonua**" erabiltzeko epea: 2022ko urtarrilaren 6a arte izango da.

## Aurkeztu beharreko dokumentuak



- Diru-laguntzaren **eskaera** normalizatua (I. eranskina)
- Pertsona fisikoa izanez gero, eskatzailearen **NANaren fotokopia**
- Eskatzailearen **IFKren fotokopia**, pertsona juridikoa bada
- Eskabidea sinatzen duenaren **ordezkaritza-ahala**, hala badagokio (II. eranskina)
- Eskatzaileak **Ogasun ordainketak egunean** dituela ziurtagiria ( Ogasuna eta Udala).
- Eskatzaileak **Gizarte Segurantzako ordainketak egunean** dituela
- **Jarduera ekonomikoen gaineko zergan (JEZ) alta** emanda egotea
- **Gizarte Segurantzaz** egun jakin batean **alta** emanda egotea.




# Tiketean/fakturaren erakutsi beharreko datuak



- Erosketaren tiketak (faktura justifikatua) datu hauek jaso beharko ditugutxienez:
  - **Establezimenduaren izena**
  - **Erosketa-data**
  - **IFK**
  - **Zenbatekoa**
  - **Tiketak zenbakituta egon behar dute**



# Epeak



**Eskaera egiteko epea:** 7 egun natural, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. 2021eko abenduaren 3a arte.

**Justifikazio-epea:** 2022ko urtarrilaren 31 arte. Faktura edo erosketa-tiketa eta eragindako bonoa edo bonuak erantsi beharko dira Lezoko Udalaren Erregistro Orokorrean, behar bezala beteta. Establezimendu batek bonu guztiak saldu ez baditu, saldu gabeko bonuak erantsi beharko ditu.





**Eskaera aurkezteko:**

## *Lezoko Udaletxea*


**Elektronikoki**

**Aurrez aurre, Lezoko  
Udalaren erregistroan.**



**Edozein kontsulta burutzeko:**

**Oarsoaldea S.A.**



**enpresa@oarsoaldea.eus  
helbide elektronikoaren bidez**



**Edo 943 49 41 29  
telefonora deituz**

